

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 50 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez. 	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	60 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

TXAPELKETAKO ARTISAUA

Ana Zaldua brodatzailea hasi da Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapelari lehen puntadak ematen. Azken 30 urteetako lanei segida emanez, hark brodatuko du aurten ere bertsolari txapeldunaren burua estaliko duen txapela.

14 urterekin hasi zen brodatzen Ana Zaldua eta, geroztik, hari, orratz eta txapel artean, eta josteko makinaren aurrean igaro ditu eguneko ordu asko eta asko. Bere Donostiako bi ahizpa brodatzaileek irakatsi zioten ofizioa. Ezkontzean, Villabonara (Gipuzkoa) joan zen bizitzera, baina ez zion inoiz brodatzeari utzi. Pilota federazioko txapelak egitea zen Donostiako bi ahizpa horien tailerreko lanetako bat, eta Anak makina bat txapela brodatzen lagundu zien. Gero, Villabonara joan zenean, herriko elkarte ugari hasi ziren Ana Zalduari txapelak enkargatzen: mus txapelketetarako, bizikleta probetarako edota pilota partidetarako, esaterako.

Orain dela ia 30 urte, Bertsolaritza Txapelketa Nagusirako lehen txapela brodatzeko eskatu zion Jesus Muruak, eta, geroztik, Zaldua izan da txapelketa nagusiko brodatzaile ofiziala. Lau urtean behin, ilusio handiz brodatzen duen txapela da bertsolariei janzten dietena. Bere ustez, egiten dituen lanen artean bereziena da. Den-dena berak egiten du. Lehenik, zetazko paper batean egiten du eredia, gero eredia txapel gainean jartzen du eta atzera-puntadaz markatzen du. Amaitzeko, papera kendu, eta brodatu egiten du. Osagarriak edo marrazkiak, berriz, brodatzeko euskarrian egiten ditu, txapelean jartzeko gero. Amaitzeko, forrua ere jartzen die txapelei, baita bere izena brodatuta ere. Lan guztia brodatzeko euskarriarekin eta makina tradizionalarekin egiten du. Hamar minutu baino ez dira behar lan hori ordenagailuz egiteko. Askoz gehiago kostatzen da eskuz. Izan ere, hiru orduko lana eskatzen dio bertso txapelketako txapela batek.

Ia 60 urte daramatza lanbide horretan eta, dagoeneko, hari mataza luzeak gastatu ditu. 60 urte horietan makina berarekin aritu da lanean: *Singer* ingeles batekin. Makinak berak baino urte gehiago ditu: 80 urtetik gora, erraz. Villabonara etorri zenean, Donostiako bi ahizpek oparitu zioten, haientzat brodatzeko. Geroztik, ez dio hutsik egin makinak. Eta 60 urte hauetan, ehunka txapel brodatu ditu makina horrekin. Hasieran, urtean ehun bat txapel egiten zituen; egun, ordea, askoz ere gutxiago. Orain, lanak aukeratu egiten ditu. Aukeratutako lanen artean dago bertsolarientzako txapela.

Bertsoak gustuko ditu, baina ulertzeko lanak izaten ditu. Eguneroko gauzetarako moldatzen da euskaraz, baina bertsoak ulertzeko... Hala ere, txapela janzteko unearen zain egoten da adi. Ilusio handia egiten dio bere txapela txapeldunaren buruan ikusteak.

ETXEBERRIA, N.

Berria, 2017ko abenduaren 2a. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zer egiten du Zalduak Bertsolari Txapelketa Nagusirako?

- a) Azken 30 urteetan txapeldunaren txapela diseinatzen du.
- b) Irabazleak jantziko duen txapela brodatzen du.
- c) Txapeldunari burua estaliko dion txapela jartzen dio.

2. Noiz hasi zen Ana Zaldua lan horretan?

- a) Ahizpek lanbidea irakatsi ziotenean.
- b) Ezkondu egin zenean.
- c) 14 urte bete baino lehenago.

3. Zer enkargu jasotzen zuen Ana Zalduak Villabonan?

- a) Pilota federazioak egindakoak baino ez.
- b) Bi ahizpen tailerrean jasotakoak.
- c) Hainbat elkartek egindakoak.

4. Zer egiten du Zalduak txapelketan?

- a) Ereduak, marrazkiak eta puntadak, besteak beste.
- b) Txapel gainean jarritako ereduan puntadak baino ez.
- c) Den-dena, osagarriak edo marrazkiak izan ezik.

5. Zenbat denbora behar du bertso txapelketako lanerako?

- a) Hamar minutu, ordenagailuz egiten baitu.
- b) Ordu batzuk, eskuz egiten baitu.
- c) Hamar minututik hiru ordura, txapelaren arabera.

6. Zer erabiltzen du Zalduak brodatzeko?

- a) Ahizpek duela 80 urte oparitutako makina.
- b) Berak erosi zuen Singer markako makina.
- c) Ana bera baino zaharragoa den makina.

7. Zer dio Zalduak orain egiten duen lanaz?

- a) Urtean ehunka txapel brodatzen duela.
- b) Bertsolarientzako txapela dela lan bakarra.
- c) Berak aukeratu egiten duela zein lani heldu.

8. Zer dio Zalduak bertsolaritzaz?

- a) Lanak izaten dituela txapelak egiteko.
- b) Kosta egiten zaiola bertsolariei ulertzea.
- c) Txapela janzteko unea besterik ez duela gustuko.

2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

A EIBARREKO EROSKETA BONUA

Edizio honetan bonuak, udaberrian, martxoaren 27tik apirilaren 29ra izango dira erabilgarri kanpainan parte hartu duten establezimenduetan. Kanpaina *Eibar Merkataritza Gune Irekiak* antolatu du, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. 40 euroko prezioa duten bonuek erosketetan 50 euroko gastua egiteko aukera emango dute 70 bat dendatan. Bonuak pilatu egin ahal dira; bestalde, bezeroek, nahi badute, bonu bakoitza bi dendatan edo establezimendutan egindako erosketetan zatikatu ahal dute, bakoitzean, gutxienez, 25 euroko erosketa eginda.

Kanpainak eskaintzen dituen abantailez gozatzeko, bakarrik Eibarren erroldatutako pertsonak erosi ahal izango dituzte bonuak. Hortaz, pertsona horiek beren nortasun agiria erakutsi beharko dute txartela erosteko orduan.

<www.eibar.eus> Egokitua

B DEBAGOIENENKO EROSKETA BONUA

Debagoieneko mankomunitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, erosketa-bonuen kanpaina jarri du martxan. 25 euroko balioa duten bonuak 20 euroren truke eskuratzeko aukera emango zaie debagoiendarrei, baina bonu hauek ezin izango dituzte berehalakoan erabili, erosteko kanpaina ekainean hasiko baita.

Kanpainan parte hartzeko interesa duten dendariak asteleheneetik aurrera dute aukera udal bulegoetan eskaera aurkezteko. Herritarrek, berriz, maiatzetik aurrera izango dute bonuak erosteko aukera. 2.000 bonu kaleratuko dira eta udaletxean salgai egongo dira goizeko 10:00etatik 12:00etara eta arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara. Herritar bakoitzak bonu bakarra eskuratu ahal izango du.

<www.oñati.eus> Egokitua

C ONDARROAKO EROSKETA BONUA

Herriko ekonomiari bultzada bat emateko, martxan jarritako *Ondarroako Bonuak* kanpaina beste hilabetez luzatuko du Udalak. Hartara, herritarrek beherapenen sasoiaren bonuak erabili ahal izango dituzte. Bonu bakoitzak 10 euroko kostua izango du eta horrekin 15 euroko gastua egin ahal izango da.

Udalak herrian erostera animatu nahi ditu herritarrak eta, horretarako, deskontua duten bonuak eskuratzera animatu nahi ditu. Herriko establezimenduetan erabili beharko dira bonuak, eta kanpainan parte hartuko duten establezimenduek beraien erakusleihoetan kanpainaren logoa izango dute jarrita herritarrek identifikatzeko.

<www.udalbarriak.eus> Egokitua

2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak

9.	Badago ordutegi jakin bat bonuak udaletxean erosteko.
10.	Udalak antolatu du beste erakunde publiko baten laguntzarik gabe.
11.	Herritarrek bonu bat baino gehiago erosteko aukera izango dute.
12.	Parte hartu nahi duten establezimenduek astelehenetik aurrera eman behar dute izena.
13.	Bonu honekin lortzen da deskonturik handiena.
14.	Ez da beharrezkoa bonua denda bakar batean gastatzea.
15.	Erabiltzeko epea handitu dute merkealdian erabili ahal izateko.
16.	Kanpainan parte hartu duten dendek kartel bat izango dute ikusgai.
17.	Herritarrek itxaron beharko dute bonuak erabili ahal izateko.

A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C

3. ariketa

Elkarrizketa bat irakurriko duzu. Testuan, kazetariak egindako galderak falta dira. Hurrengo orrian dituzu galderak. **Lotu galderak eta erantzunak.**

Markatu testuko hutsuneak (18, 19, 20...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Galdera bat sobera dago.

BEGO VIÑUELA

Gaur egun gutxi dira eskutitzak, postalak edota Gabonak zoriontzeko gutunak idazten dituztenak. Geroz eta informatizatuago dagoen gizarte honetan, Bego Viñuela kaligrafo bilbotarrak, luma eta tinta lagun, maitasun handiz marrazten du bere “Caligrafía Bilbao” tailerrean.

18

Uste dut orokorrean eskuz egindako gauzetara bueltatzen ari garela, eta horrelako lanak oso ondo baloratuta daude. Nik geroz eta eskaera gehiago jasotzen ditut.

19

Ezkontza eta jaunartzetarako gonbidapenak gehienbat. Horrekin batera, mota guztietako gonbidapenak, testu liburuak, sinadurak eta logotipoak egiten ditut. Letrak dituen edozein txokotan egin dezaket lan.

20

Arte Ederrak ikasten ari nintzenean, tipografiaz hitz egin zidaten. Ordura arte ordenagailuz egiten zela uste nuen, eta eskuzko prozesua ezagutu nuenean, gehiago ezagutzeko grina piztu zitzaidan. Bartzelonan, kaligrafia tailer batean praktikak egiteko aukera eskaini zidaten; orduan jakin nuen nire ametsetako lana aurkitu nuela.

21

Lanbide honetan presaka ibiltzea ez da ona; denboraz larri ibili arren, lasai egin behar da lan. Kaligrafian ez dago ‘Ctrl Z’ teklarik, eta hanka sartzan baduzu, berriz ere hutsetik hasi behar duzu. Nahikoa da akats ortografiko bat edo tinta tanta bat prozesu guztia errepikatzeko.

22

Adin zein profil askotakoak etortzen zaizkit. Gehienak Arte Ederretako ikasleak dira, baina azkenaldian argazkilariak, tatuaje egileak, moda diseinatzaileak eta diseinatzaile grafikoak ere hurbiltzen hasi dira. Badira soilik eskuz egindako gauzeekin gozatzeraz etortzen direnak ere; gehienetan jende heldua.

23

Hala da, kaligrafiari ez diogu merezi duen garrantzia ematen. Guraso asko etortzen dira beren seme-alaben idazteko estilo traketsarekin kezkatuta, eta gehienetan arazo nagusia bolaluma hartzeko modua izaten da. Harrigarriak dira haur batzuek idazteko hartzen dituzten jarrerak.

24

Kalkulagailua egon arren zenbatzen irakasten diguten moduan, ezinbestekoa iruditzen zait idazten ikastea. Eskuz idazteak onura ugari ditu, ideiak kanporatzeko modurik zuzenena baita, eta sormena garatzen izugarri laguntzen du. Beraz, ez dut uste ahaztuko zaigunik.

25

Kirolari baten moduan, entrenamendu kontua da. Egunero tarte bat hartzeko esango nioke, lasai eseri, eta gustuko testu baten paragrafo bat kopiatzeko. Denbora laburrean hobetuko du.

URRUTIKOETXEA, A.

Gaztezulo, 2016ko ekainaren 10a. Egokitua

3. ariketa. Lotu galderak eta erantzunak

- A. Idazteko modua geroz eta gutxiago zaintzen da?
- B. Zer gomendio emango zenioke bere letra hobetu nahi duen norbaiti?
- C. Irakasle ere bazara; nolako jendea dago interesatuta kaligrafian?
- D. Zer da jendeak gehien eskatzen dizuna?
- E. Pultsu ona izatea ezinbestekoa izango da zure lanbidean?
- F. Gaur egun kaligrafia eskaera handia al dago?
- G. Eskoletan geroz eta kaligrafia gutxiago irakasten dute. Eskuz idazten ahaztuko zaigu?
- H. Zer eman dizu kaligrafiak zure bizitzan zehar?
- I. Zergatik aukeratu zenuen kaligrafia?

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak								

Soberakoa	
-----------	--

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Emandako informazioa ezin duzu hitzez hitz kopiatu.**
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **inprimakia** bete behar duzu.
Gutxienez 50 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Garrantzi gutxiko ebakuntza egin baino pare bat ordu lehenago esan dizute gaur ezin izango dizutela egin.

Ospitaleko bezeroarentzako arreta zerbitzuan erreklamazio-orria hartu duzu kexa ipintzeko. Azal ezazu zein arrazoi eman dizuten ebakuntza ez egiteko, horrek zer kalte sortu dizkizun eta eskatu ebakuntza egiteko beste hitzordu bat.

2. ariketa

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.
Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Zurekin batera Administrazioan lan egiten hasi zen lankide baten mezua jaso duzu.

■ Hauxe da jaso duzun mezua:

The screenshot shows an email client window titled "Idatzi mezua". At the top, there are buttons for "Bidali", "Gorde", and "Baztertu". The "Norentzat:" field contains "Garbiñe". Below it are links for "Gehitu Cc" and "Gehitu Bcc". The "Gaia:" field contains "Informazio eske". There is a link for "Erantsi fitxategia". A rich text editor toolbar is visible with various icons and a "Testu arunta" button. The email body text is as follows:

Kaixo, Garbiñe:

Ezer baino lehen, zorionak lortu duzun kargu berriagatik. Benetan, pozten naiz, merezi duzu eta.

Neuk ere badut berri bat kontatzeko: zuk utzi duzun arduradun-lanpostua niri eskaini didate. Saileko arduraduna izateak ez dit beldurrik ematen, baina kargua hartzeko zalantzak ditut. Beraz, eskertuko nizuke informazioa ematea: nolako lana da? Nolakoak dira lankideak? Ordutegitik kanpo lanik eskatzen du?... Azken batean, zure ustez, egokia naiz lan horretarako?

Zure erantzunen zain geratzen naiz,

Miren

■ Erantzun iezaiozu lankide ohiari.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «TXAPELKETAKO ARTISAUA»

1.	B	2.	A	3.	C	4.	A
5.	B	6.	C	7.	C	8.	B

- **2. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.
- **Irakurgaia:** «EROSKETA BONUA»

9.	B	10.	C	11.	A
12.	B	13.	A	14.	A
15.	C	16.	C	17.	B

- **3. ariketa:** lotu galderak eta erantzunak.
- **Irakurgaia:** «BEGOÑA VIÑUELA»

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak	F	D	I	E	C	A	G	B

Soberakoa	H
-----------	---